Arrazoizko balio hori gutxitzeagatik ondare garbian aitortutako galera metatuak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, betiere, objektiboki ikusten denean aktiboaren balioaren narriadura gertatu dela. Ondorengo ekitaldietan arrazoizko balioak gora egingo balu, aurreko urteetan aitortutako balorazio-zuzenketa itzuli egiten da, eta ekitaldiko galdu-irabazien kontuan gehitzen da.

Arrazoizko balio fidagarriaz zehaztu ezinik, bere kostuan baloratzen diren ondare-tresnetan, narriaduragatiko balorazio-zuzenketak taldearen enpresetan, enpresa talde-aniztunetan zein elkartuetan inbertsioetarako ezarritakoaren arabera kalkulatzen dira, eta ez dira itzulgarriak, aktiboaren balioaren kontrakarrean erregistratzen dira zuzen-zuzenean, eta ez bere balioa zuzentzeko kontuan.

d) *Galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioaren araberako finantza-aktiboak*

Batera kudeatzen diren finantza-aktiboen multzoa eratzen dute, eta haien errendimendua arrazoizko balioan oinarrituz ebaluatzen da. Erakundeak, zehazki, Arrisku-Kapitaleko Funtsetan eta Elkarrekiko Garantia-Elkarteetan dituen partaidetzak erregistratzen ditu kategoria honetan.

Arrisku-kapitaleko funtsetako partaidetzen kasuan, aktibo horien arrazoizko balioa zenbatesteko, partaidetzako funtsaren ondare garbia hartuko da aintzat, balioztatze-datan dauden gainbalio eta minusbalia tazituekin doituta eta zuzenduta; izan ere, arau orokor gisa, metodo hori erabiliz zehazten da zer arrazoizko balio duten arrisku-

Las pérdidas acumuladas reconocidas en el patrimonio neto por disminución del valor razonable, siempre que exista una evidencia objetiva del deterioro en el valor del activo, se reconocen en la cuenta de pérdidas y ganancias. Si en ejercicios posteriores se incrementase el valor razonable, la corrección valorativa reconocida en ejercicios anteriores revierte con abono a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio.

En el caso de los instrumentos de patrimonio valorados a coste, por no poder determinarse con fiabilidad su valor razonable, las correcciones valorativas por deterioro se calculan de acuerdo a lo establecido para inversiones en empresas del grupo, multigrupo y asociadas, y no son reversibles, registrándose las mismas directamente contra el valor del activo y no como cuenta correctora de su valor.

d) *Activos financieros a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias*

Constituyen un grupo de activos financieros que se gestionan conjuntamente y cuyo rendimiento se evalúa sobre la base del valor razonable. En concreto, el Ente registra bajo esta categoría sus participaciones en Fondos de Capital Riesgo y Sociedades de Garantía Recíproca.

En el caso de las participaciones en fondos de capital riesgo, en la estimación del valor razonable de estos activos se tomará en consideración el patrimonio neto del fondo participado, ajustado y corregido por las plusvalías y minusvalías tácitas existentes a la fecha de valoración, dado que como norma general, el valor razonable de las inversiones

kapitaleko funtsetako ondare-tresna kotizatu gabeetan egiten diren inbertsioek.

Finantza-aktibo horiek, hasierako unean nahiz hurrengo balioztatzeetan, arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira, eta ekitaldiko galdu-irabazien kontura egozten dira balio horretan gertatzen diren aldaketak. Eskurapenari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira.

e) *Trukeak*

Truke bat merkataritzakoa da jasotako aktiboaren eskudiru-fluxuen konfigurazioa ez datorrenean bat emandako aktiboaren eskudiru-fluxuarekin, edo trukearen mende dauden enpresaren jardueren eskudiru-fluxuen gaur egungo balioa aldatzen bada eragiketaren ondorioz. Horrez gain, behar-beharrezkoa izango da kausa horien ondoriozko aldeak adierazgarriak izatea trukatutako aktiboen arrazoizko balioarekin alderatzean. Hala izan ezean, truke-eragiketa merkataritzakoa ez den truketzat joko da.

5.2 Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Epigrafe honetan sartzen dira kutxako, bankuko kontu korronteetako eta gordailuetako dirua, likidezia handiko beste inbertsio batzuk eta baldintza hauek guztiak betetzen dituzten aktiboen aldi baterako eskurapenak:

- Eskudiru bihurtu daitezke.

en instrumentos de patrimonio no cotizados que ostentan dichos fondos de capital riesgo se determina utilizando este método.

Estos activos financieros se valoran, tanto en el momento inicial como en valoraciones posteriores, por su valor razonable, imputando los cambios que se produzcan en el mismo en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio. Los costes de transacción directamente atribuibles a la adquisición se reconocen en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio.

e) *Permutas*

Se entiende que una permuta es comercial cuando la configuración de los flujos de efectivo del activo recibido difiere de la configuración de flujos del activo entregado o cuando el valor actual de los flujos de efectivo de las actividades de las empresas afectadas por la permuta se ve modificado como consecuencia de la operación. Además, es necesario que las diferencias surgidas por estas causas resulten significativas al compararla con el valor razonable de los activos intercambiados. En otro caso la operación de permuta se considerará como permuta no comercial.

5.2 Efectivo y otros activos líquidos equivalentes

Este epígrafe incluye el efectivo en caja, las cuentas corrientes bancarias y los depósitos, otras inversiones de alta liquidez y adquisiciones temporales de activos que cumplen con todos los siguientes requisitos:

- Son convertibles en efectivo.

• Eskuratzeko unean hiru hiletik gorakoa ez zen epemuga zuten.

• Ez daude balio-aldaketak izateko arrisku nabarmenaren pean.

• Erakundeko diruzaintzako kudeaketa-politika arruntaren parte dira.

• En el momento de su adquisición su vencimiento no era superior a tres meses.

• No están sujetos a un riesgo significativo de cambio de valor.

• Forman parte de la política de gestión normal de tesorería del Ente.

5.3 Finantza-pasiboak

Ordaintzekoak diren zordunketak eta partidak

Kategoria honen barruan, eragiketa komertzialen ondoriozko zorrak eta eragiketa ez-komertzialen ondoriozko zorrak sartzen dira. Besteren baliabide horiek pasibo korronte gisa sailkatzen dira, salbu eta Erakundeak baldintzarik gabeko eskubidea badu horien likidazioa geroratzeko, gutxienez 12 hilabetez balantze-dataren ondoren.

Hasieran arrazoizko balioa erabiltzen da zor horiek kontabilizatzeko, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera egokituta, eta, gero, kostu amortizatuaren bidez kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita. Interes efektiboa honako hau da: tresnaren liburu-balioa eta pasiboaren mugaegunera arte aurreikusten diren etorkizuneko ordainketen esperotako korrontea berdintzen dituen eguneratze-tasa.

Nolanahi ere, urtebeteko edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialengatiko zorrak beren balio nominalaren arabera balioztatuko dira, hasierako unean nahiz aurrerago, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa handia ez bada.

5.3 Pasivos financieros

Débitos y partidas a pagar

Esta categoría incluye débitos por operaciones comerciales y débitos por operaciones no comerciales. Estos recursos ajenos se clasifican como pasivos corrientes, a menos que el Ente tenga un derecho incondicional a diferir su liquidación durante al menos 12 meses después de la fecha del balance.

Estas deudas se reconocen inicialmente a su valor razonable ajustado por los costes de transacción directamente imputables, registrándose posteriormente por su coste amortizado según el método del tipo de interés efectivo. Dicho interés efectivo es el tipo de actualización que iguala el valor en libros del instrumento con la corriente esperada de pagos futuros previstos hasta el vencimiento del pasivo.

No obstante lo anterior, los débitos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tienen un tipo de interés contractual se valoran, tanto en el momento inicial como posteriormente, por su valor nominal cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

Lehendik zeuden zorrak berriz negoziatzen badira, ulertuko da ez dagoela finantza-pasiboaren aldaketa nabarmenik, baldin eta mailegu berriaren emailea hasierako maileguaren emaile bera bada eta diru-fluxuen uneko balioa, komisio garbiak barne, ez bada desberdintzen metodo hori bera erabiliz kalkulatutako jatorriko pasibotik ordaintzeke dauden diru-fluxuen uneko balioaren % 10ean baino gehiagoan. Interesak sortzen dituzten banku-maileguak jasotako zenbatekoan oinarrituta erregistratzen dira, jaulkipenaren kostuak kenduta. Finantza-gastuak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, interes efektiboaren metodoa erabiliz.

En el caso de producirse renegociación de deudas existentes, se considera que no existen modificaciones sustanciales del pasivo financiero cuando el prestamista del nuevo préstamo es el mismo que el que otorgó el préstamo inicial y el valor actual de los flujos de efectivo, incluyendo las comisiones netas, no difiere en más de un 10% del valor actual de los flujos de efectivo pendientes de pagar del pasivo original calculado bajo ese mismo método. Los préstamos bancarios que devengan intereses se registran por el importe recibido, neto de costes de emisión. Los gastos financieros se registran en la cuenta de pérdidas y ganancias utilizando el método del interés efectivo.

5.4 Zerga arruntak eta geroratuak

Mozkinen gaineko zergen ondoriozko gastua (sarrera) ekitaldian kontzeptu horregatik sortzen den zenbatekoa da, eta barne hartzen ditu hala zerga arrunten nola zerga geroratuen ondoriozko gastuak (sarrerak).

Zerga arrunten nahiz geroratuen ondoriozko gastua (sarrera) galdu-irabazien kontuan erregistratzen da. Nolanahi ere, ondare garbian kontabilizatzen dira zuzenean ondare garbian erregistratzen diren partidekin lotutako zerga-ondorioak.

Zerga arruntaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak balioztatzeko, ordaintzea edo zerga-agintariengandik berreskuratzea aurreikusitako zenbatekoak erabiltzen dira, ekitaldia ixten den egunean indarrean edo onartuta eta argitaratzeko dagoen araudiaren arabera.

5.4 Impuestos corrientes y diferidos

El gasto (ingreso) por impuesto sobre beneficios es el importe que, por este concepto, se devenga en el ejercicio y que comprende tanto el gasto (ingreso) por impuesto corriente como por impuesto diferido.

Tanto el gasto (ingreso) por impuesto corriente como diferido se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias. No obstante, se reconoce en el patrimonio neto el efecto impositivo relacionado con partidas que se registran directamente en el patrimonio neto.

Los activos y pasivos por impuesto corriente se valoran por las cantidades que se espera pagar o recuperar de las autoridades fiscales, de acuerdo con la normativa vigente o aprobada y pendiente de publicación en la fecha de cierre del ejercicio.

Zerga geroratuen ondoriozko aktiboak eta etorkizuneko ekitaldietan konpentsatu beharreko galerengatiko kreditu fiskalak kontabilizatzen dira, horiek ordaindu ahal izateko gerora irabazi fiskalak edukiko direla gertagarria den heinean.

Los activos por impuestos diferidos y créditos fiscales por pérdidas a compensar en ejercicios futuros, se reconocen en la medida en que resulte probable que se vaya a disponer de ganancias fiscales futuras con las que poder compensarlos.

5.5 Gizarte Funtsa

Gizarte Funtsa, oinarrian, Euskal Autonomia Erkidegoak ekarritako zenbatekoen baliokide da.

5.5 Fondo Social

El fondo social equivale, básicamente, a los importes aportados por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

5.6 Aktiboak eta pasiboak korronte eta ez-korronte gisa sailkatzea

Aktiboak eta pasiboak korronte eta ez-korronte gisa sailkatuta aurkezten dira balantzean. Aktibo eta pasiboak korronte gisa sailkatzen dira, baldin eta Erakundearen ustiapen-ziklo normalari lotuta badaude, eta ziklo horren bilakaeran salduko, kontsumituko, gauzatuko edo likidatuko direla espero bada, edo, eskudirua nahiz beste aktibo likido baliokidea izanik, horien erabilera ez badago urtebetetik gorako epera mugatuta.

5.6 Clasificación de los activos y pasivos entre corrientes y no corrientes

Los activos y pasivos se presentan en el balance clasificados entre corrientes y no corrientes. A estos efectos, los activos y pasivos se clasifican como corrientes cuando están vinculados al ciclo normal de explotación del Ente y se esperan vender, consumir, realizar o liquidar en el transcurso del mismo, o se trata de efectivo y otros activos líquidos equivalentes cuya utilización no está restringida por un periodo superior a un año.

5.7 Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak jasoko den kontra-prestazioaren arrazoizko balioan erregistratzen dira. Adierazten dituzte Erakundearen jardueren ohiko esparruan emandako zerbitzuengatik eta entregatutako ondasunengatik kobratzeke dauden zenbatekoak, itzulketak, beherapenak, deskontuak eta balio erantsiaren gaineko zerga izan ezik.

5.7 Ingresos y gastos

Los ingresos se registran por el valor razonable de la contraprestación a recibir y representan los importes a cobrar por los bienes entregados y los servicios prestados en el curso ordinario de las actividades del Ente, menos devoluciones, rebajas, descuentos y el impuesto sobre el valor añadido.

Erakundeak diru-sarrerak kontabilizatzen ditu, baldin eta horien zenbatekoa fidagarritasunez balioztatu badaiteke, aski litekeena bada etorkizuneko mozkinak Erakundera bideratuko direla, eta jarduerarako ezarrita dauden berariazko baldintzak betetzen badira. Ez da fidagarritasunez balioztatzeko modukotzat hartuko, ezin izan badira konpondu salmentarekin lotutako gorabeherak.

Erakundeak, ICACaren interpretazioan ezarritakoa oinarri harturik (2009ko iraileko BOICAC, 79. zk.), galdu-irabazien kontuko «negozio-zifraren zenbateko garbia» epigrafearen barruan sailkatzen ditu (ustiapen-marjinan) partaidetzako sozietateetatik datozen mailegu-interesak eta dibidenduak, baita bere jardueraren parte diren beste batzuk ere, diru-sarrera horiek Erakundearen ohiko jarduerari dagozkiola ulertuta.

Halaber, ustiapen-marjinan sailkatzen ditu bere jarduera gauzatzeko egindako gastuak, ustiapen-emaitza koherentea aurkezteko asmoz, baita taldeko enpresen, talde anitzeko enpresen eta elkartuen partaidetzen eta maileguen balioaren narriadura ere, «finantza-tresnen narriadura» epigrafean.

a) *Interesen ondoriozko diru-sarrerak*

Interesen ondoriozko diru-sarrerak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kontabilizatzen dira. Kobratzekoa den kontu batean galerak badaude balioaren narriadura dela eta, Erakundeak berreskuratu daitekeen zenbatekora murrizten du haren kontabilitate-balioa: hau da, interes-tasa efektiboaren arabera deskontatzen ditu tresnaren

El Ente reconoce los ingresos cuando el importe de los mismos se puede valorar con fiabilidad, es probable que los beneficios económicos futuros vayan a fluir al Ente y se cumplen las condiciones establecidas específicas para su actividad. No se considera que se pueda valorar con fiabilidad cuando no se han resuelto las contingencias relacionadas con la venta.

El Ente, en base a lo establecido en la interpretación del ICAC, publicada en el BOICAC 79, de septiembre de 2009, clasifica, en el margen de explotación, los intereses de préstamos y dividendos procedentes de las sociedades participadas y otras que formen parte de su actividad dentro del epígrafe "Importe neto de la cifra de negocios" de la cuenta de pérdidas y ganancias, por considerar que dichos ingresos corresponden a la actividad ordinaria del Ente.

A su vez, se clasifican en el margen de explotación los gastos financieros incurridos para realizar su actividad, con objeto de presentar un resultado de explotación coherente, así como el deterioro de valor de las participaciones y préstamos en empresas del Grupo, multigrupo y asociadas y otras empresas dentro del epígrafe "deterioro de instrumentos financieros".

a) *Ingresos por intereses*

Los ingresos por intereses se reconocen usando el método del tipo de interés efectivo. Cuando una cuenta a cobrar sufre pérdida por deterioro del valor, el Ente reduce el valor contable a su importe recuperable, descontando los flujos de efectivo estimados al tipo de interés efectivo original del instrumento y continúa llevando el descuento como

diru-fluxu zenbatetsiak, eta deskontua interesen ondoriozko diru-sarrera txikiago gisa eramanez jarraitzen du. Balioaren narriadura dela-eta galerak izan dituzten maileguen interesen ondoriozko diru-sarrerak kontabilizatzeko, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da.

b) *Dibidenduen ondoriozko diru-sarrerak*

Dibidenduen ondoriozko diru-sarrerak, berriz, diru-sarrera gisa kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan, kobrantza jasotzeko eskubidea ezartzen denean. Nolanahi ere, eskuratze-data baino lehen sortutako emaitzetatik baldin badatoz banatutako dibidenduak, ez dira diru-sarrera gisa kontabilizatzen, eta inbertsioaren kontabilitate-balioa txikiagotzen da.

c) *Langileen epe luzeko ordainsarigatiko pasiboak*

Erakundeak enplegatuekiko konpromisoa onartuta dauka kanpoko pentsio-plan batean ekarpen zehatza egiteko. Ekarpena soldataren gaineko ehunekoaz osatuta dago. Plana ITZARRI EPSV, Aurreikuspen Sozialeko Entitatean dago. Aurreikuspen-sistemaren barne Sozietate Publikoak daude, eta horien artean dago Erakundea bazkide babesle gisa.

5.8 Alderdi lotetsien arteko transakzioak

Oro har, taldeko enpresen arteko transakzioak arrazoizko balioan kontabilizatzen dira hasierako unean. Hitzartutako prezioa eta arrazoizko balioa ez badira berdinak, eragiketaren errealitate

menor ingreso por intereses. Los ingresos por intereses de préstamos que hayan sufrido pérdidas por deterioro del valor se reconocen utilizando el método del tipo de interés efectivo.

b) *Ingresos por dividendos*

Los ingresos por dividendos se reconocen como ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias cuando se establece el derecho a recibir el cobro. No obstante lo anterior, si los dividendos distribuidos proceden de resultados generados con anterioridad a la fecha de adquisición, no se reconocen como ingresos, minorando el valor contable de la inversión.

c) *Pasivos por retribuciones a largo plazo al personal*

El Ente tiene asumido con los empleados el compromiso de realizar una aportación definida, consistente en un porcentaje sobre su salario, a un Plan de Pensiones externo. El plan se encuentra externalizado en la Entidad de Previsión Social Voluntaria ITZARRI, EPSV, cuyo sistema de previsión incluye a las Sociedades Públicas, entre las que se encuentra el Ente en condición de socio protector.

5.8 Transacciones entre partes vinculadas

Con carácter general, las transacciones entre empresas del grupo se contabilizan en el momento inicial por su valor razonable. En su caso, si el precio acordado difiere de su valor razonable, la

ekonomikoari begiratuz erregistratzen da bien arteko diferentzia. Geroko balioztatzea egiteko, horretarako dauden arauetan zehaztutakoa beteko da.

diferencia se registra atendiendo a la realidad económica de la operación. La valoración posterior se realiza conforme a lo previsto en las correspondientes normas.

6. Finantza-tresnak

Honako hau da «Finantza-tresnak» erregistratzeko eta balioztatzeko arauan ezarritako finantza-instrumentuen kategoria bakoitzaren liburu-balioa, salbu eta taldeko enpresen, talde anitzeko enpresen eta enpresa elkartuen ondarean egindako inbertsioena (7. oharra):

6. Instrumentos financieros

El valor en libros de cada una de las categorías de instrumentos financieros establecidas en la norma de registro y valoración de "Instrumentos financieros", excepto los instrumentos de patrimonio de empresas del grupo, multigrupo y asociadas (Nota 7), es el siguiente:

	Euroak / Euros			
	Epe luzerako finantza-aktiboak / Activos financieros a largo plazo			
	Ondare-tresnak / Instrumentos de patrimonio		Beste batzuk / Otros	
	2018	2017	2018	2017
Galdu-irabazietan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioaren araberako aktiboak (8. oharra) / Activos a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias (Nota 8)	13.600.790	8.116.405	-	-
Salmentarako prest dauden aktiboak (9. oharra) / Activos disponibles para la venta (Nota 9)	805.837	-	-	-
Kobratzekoak diren maileguak eta partidak (10. oharra) / Préstamos y partidas a cobrar (Nota 10)	-	-	174.652.063	197.103.620
	14.406.627	**8.116.405**	**174.652.063**	**197.103.620**

	Euroak / Euros			
	Epe laburrerako finantza-aktiboak / Activos financieros a corto plazo			
	Ondare-tresnak / Instrumentos de patrimonio		Beste batzuk / Otros	
	2018	2017	2018	2017
Kobratzekoak diren maileguak eta partidak (10. oharra) / Préstamos y partidas a cobrar (Nota 10)	-	-	57.840.588	46.978.594
	-	-	**57.840.588**	**46.978.594**

	Euroak / Euros			
	Epe luzerako finantza pasiboak / Pasivos financieros a largo plazo			
	Kreditu-erakundeekiko zorrak / Deudas con entidades de crédito		Beste batzuk / Otros	
	2018	2017	2018	2017
Ordaintzekoak diren zordunketak eta partidak (13. oharra) / Débitos y partidas a pagar (Nota 13)	137.500.000	143.750.000	108.642.248	122.222.359
	137.500.000	**143.750.000**	**108.642.248**	**122.222.359**

	Euroak / Euros			
	Epe laburrerako finantza-pasiboak / Pasivos financieros a corto plazo			
	Kreditu-erakundeekiko zorrak / Deudas con entidades de crédito		Beste batzuk / Otros	
	2018	2017	2018	2017
Ordaintzekoak diren zordunketak eta partidak (13. oharra) / Débitos y partidas a pagar (Nota 13)	6.254.132	6.257.328	45.861.681	52.151.352
	6.254.132	**6.257.328**	**45.861.681**	**52.151.352**

2018ko abenduaren 31n, zenbateko hauek dagozkie mugaegun finkatua edo mugagarria duten finantza-tresnei, mugaegunaren urtearen arabera sailkatuak, horniduren aurretik:

Al 31 de diciembre de 2018, los importes de los instrumentos financieros con un vencimiento determinado o determinable clasificados por año de vencimiento, antes de provisiones son los siguientes:

	Euroak / Euros						
	Finantza-aktiboak / Activos financieros						
	2019	2020	2021	2022	2023	Ondorengo urteak / Años posteriores	Guztira / Total
Inbertsioak taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan / Inversiones en empresas del grupo y asociadas							
Enpresentzako kredituak (10. oharra) / Créditos a empresas (Nota 10)	3.734.384	3.433.484	1.920.056	1.109.382	1.128.027	18.943.635	30.268.968
Beste finantza-aktibo batzuk (10. oharra) / Otros activos financieros (Nota 10)	276.445	-	-	-	-	-	-
	4.010.829	3.433.484	1.920.056	1.109.382	1.128.027	18.943.635	30.268.968
Beste finantza-inbertsio batzuk / Otras inversiones financieras							
Enpresentzako kredituak (10. oharra) / Créditos a empresas (Nota 10)	57.608.199	31.751.185	31.547.632	30.456.637	24.805.445	55.161.416	231.330.514
	57.608.199	31.751.185	31.547.632	30.456.637	24.805.445	55.161.416	231.330.514
	61.619.028	**35.184.669**	**33.467.688**	**31.566.019**	**25.933.472**	**74.105.051**	**261.599.482**

	Euroak / Euros						
	Finantza-pasiboak / Pasivos financieros						
	2019	2020	2021	2022	2023	Ondorengo urteak / Años posteriores	Guztira / Total
Hartzekodun komertzialak eta ordaintzekoak diren kontuak (13. oharra) / Acreedores comerciales y cuentas a pagar (Nota 13)	21.485	-	-	-	-	-	21.485
Kreditu-erakundeekiko zorrak (13. oharra) / Deudas con entidades de crédito (Nota 13)	6.254.132	18.750.000	18.750.000	18.750.000	18.750.000	62.500.000	143.754.132
Beste finantza-pasibo batzuk (13. oharra) / Otros pasivos financieros (Nota 13)	45.840.196	14.610.621	14.790.624	11.223.005	15.111.112	52.906.886	154.482.444
	52.115.813	**33.360.621**	**33.540.624**	**29.973.005**	**33.861.112**	**115.406.886**	**298.258.061**

7. Epe luzerako partaidetzak taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan

Egoera-balantzeko epigrafe honetako ondare-tresnak Finantzen Euskal Institutuak Ekarpen Private Equity SA eta Garapenerako Euskadiko Kapital Sozietatea SOCADE SAn dituen partaidetzari dagozkie.

5.1.b oharrean adierazten den bezala, 2018ko abenduaren 26an, Finantzen Euskal Institutuaren enpresa-ondareari erantsi zaio EAEko Administrazioak Ekarpen Private Equity SA (3.141.600 akzio euro bateko balio nominalean bakoitza eta 10.858.400 euroko jaulkipen-prima batekin) eta Garapenerako Euskadiko Kapital Sozietatea SOCADE SA (20.000 akzio 601,01 euroko balio nominalean bakoitza) sozietateetan dituen akzio-partaidetzak.

7. Participaciones en empresas del grupo y asociadas a largo plazo

Los instrumentos de patrimonio de este epígrafe del balance de situación corresponden a la participación que el Instituto Vasco de Finanzas ostenta en Ekarpen Private Equity, S.A. y la Sociedad de Capital-Desarrollo de Euskadi SOCADE, S.A.

Tal y como se indica en nota 5.1.b, con fecha 26 de diciembre de 2018 se ha incorporado al patrimonio empresarial del Instituto Vasco de Finanzas la participación que el Gobierno Vasco posee en el capital social de Ekarpen Private Equity, S.A. (3.141.600 acciones de 1 euros de valor nominal cada una, con una prima de emisión de 10.858.400 euros), y SOCADE, S.A. (20.000 acciones de 601,01 euros de valor nominal cada una).

2018ko abenduaren 31n, Ekarpen Private Equity SAn 10.546.800 akzio euro bateko balio nominalean bakoitza eta 36.453.200 euroko jaulkipen-prima batekin eta Garapenerako Euskadiko Kapital Sozietatea SOCADE SAn 20.000 akzio 601,01 euroko balio nominalean bakoitza ditu Erakundeak.

A 31 de diciembre de 2018, el Ente posee en Ekarpen Private Equity, S.A., 10.546.800 acciones de 1 euro de valor nominal cada una, con una prima de emisión de 36.453.200 euros; y en SOCADE, S.A. 20.000 acciones de 601,01 euros cada una.

	Euroak / Euros		
	2018		
	Ekarpen Private Equity, S.A.	**SOCADE, S.A.**	**TOTAL**
Kostua / Coste	42.588.477	12.020.200	54.608.677
Narriaduragatiko hornidura / Provisión por deterioro	(10.399.451)	-	(10.399.451)
Amaierako saldoa / Saldo final	**32.189.026**	**12.020.200**	**44.209.226**

	Euroak / Euros		
	2017		
	Ekarpen Private Equity, S.A.	**SOCADE, S.A.**	**TOTAL**
Kostua / Coste	33.000.000	-	33.000.000
Narriaduragatiko hornidura / Provisión por deterioro	(10.706.451)	-	(10.706.451)
Amaierako saldoa / Saldo final	**22.293.549**	**-**	**22.293.549**

Hona hemen 2018ko eta 2017ko ekitaldietan epigrafe honetan izandako mugimendua:

El movimiento de este epígrafe en el ejercicio 2018 y 2017 es el siguiente:

	Euroak / Euros		
	Ekarpen Private Equity, S.A.	**SOCADE, S.A.**	**TOTAL**
KOSTUA / COSTE			
2017ko urtarrilaren 1eko saldoa / Saldo al 1 de enero de 2017	33.000.000	-	33.000.000
Sarrerak / Entradas	-	-	-
Irterrak edo bajak / Salidas o bajas	-	-	-
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	**33.000.000**	**-**	**33.000.000**
Sarrerak / Entradas	9.588.477	12.020.200	21.608.677
Irterrak edo bajak / Salidas o bajas	-	-	-
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**42.588.477**	**12.020.200**	**54.608.677**
NARRIADURA / DETERIORO			
2017ko urtarrilaren 1eko saldoa / Saldo al 1 de enero de 2017	(11.100.513)	-	(11.100.513)
Galerak (15.2. oharra) / Pérdidas (Nota 15.2)	-	-	-
Itzulera (15.2. oharra) / Reversión (Nota 15.2)	394.062	-	394.062
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	**(10.706.451)**	**-**	**(10.706.451)**
Galerak (15.2. oharra) / Pérdidas (Nota 15.2)	-	-	-
Itzulera (15.2. oharra) / Reversión (Nota 15.2)	307.000	-	307.000
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**(10.399.451)**	**-**	**(10.399.451)**
KONTABILITATE BALIO GARBIA/ VALOR NETO CONTABLE			
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	**22.293.549**	**-**	**22.293.549**
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**32.189.026**	**12.020.200**	**44.209.226**

2018ko ekitaldian, Ekarpen Private Equity, S.A.ren 307.000 euroko hornidura lehengoratu da emaitzen aldera (2017: 394.062 euroko hornidura lehengoratu zen emaitzen kontura) (15.2. oharra).

En el ejercicio 2018 se ha revertido la provisión de Ekarpen Private Equity, S.A. con abono a resultados por importe de 307.000 euros (2017: reversión con abono a resultados de 394.062 euros) (Nota 15.2).

2018ko eta 2017eko abenduaren 31n, hauek dira aipatutako sozietateen datu garrantzitsuenak:

Los datos más relevantes de las citadas sociedades a 31 de diciembre de 2018 y 2017 son los siguientes:

2018	Partaidetza / Participación	Kostua / Coste	Narriadura / Deterioro	Kapital soziala / Capital social	Jaulkipen-prima / Prima de emisión	Erreserbak / Reservas	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak / Resultados negativos de ejercicios anteriores	Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	Hartut. dirulaguntz. dohaintz. eta legat. / Subv., donac. y legad. recib.	Ondare garbia / Patrimonio neto	Auditorea / Auditor
Ekarpen Private Equity, S.A. (*)	34,81%	42.588.477	(10.399.451)	30.294.000	104.706.000	12.445.360	(56.241.984)	1.256.936	-	92.460.312	PwC
SOCADE, S.A. (**)	40,00%	12.020.200	-	30.050.500	-	11.528.326	-	359.743	6.708	41.945.277	PwC

(*) 2018ko abenduaren 31n ikuskatu gabeko datuak. Zifrak eurotan. Datos no auditados a 31 de diciembre de 2018. Cifras en euros
(**) 2017ko abenduaren 31n ikuskatutako datuak. Zifrak eurotan. Datos auditados a 31 de diciembre de 2017. Cifras en euros.

2017	Partaidetza / Participación	Kostua / Coste	Narriadura / Deterioro	Kapital soziala / Capital social	Jaulkipen-prima / Prima de emisión	Erreserbak / Reservas	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak / Resultados negativos de ejercicios anteriores	Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	Hartut. dirulaguntz. dohaintz. eta legat. / Subv., donac. y legad. recib.	Ondare garbia / Patrimonio neto	Auditorea / Auditor
Ekarpen Private Equity, S.A.	24,44%	33.000.000	(10.706.451)	30.294.000	104.706.000	12.445.360	(57.838.718)	1.596.734	-	91.203.376	PwC

2017ko abenduaren 31n ikuskatutako datuak. Zifrak eurotan. Datos auditados a 31 de diciembre de 2017. Cifras en euros.

8. Galdu-irabazietan aldaketak eragiten dituen arrazoizko balioaren araberako finantza aktiboak

Ondare-tresnak Erakundeak Ezten Arrisku Kapitaleko Funtsean (AKF) eta Elkargi EGEn duen partaidetzari dagozkio.

Erakundeko administrazio-kontseiluak, 2011ko abenduaren 16an egindako bileran, erabaki zuen 14.000.000 euroko ekarpena egitea Ezten AKFri. 2012ko otsailaren 22an ekarpena ordaindu zen. Ezten AKFren 2011. urteko kontuak formulatu eta onartu ondoren, 2.164,1842 partaidetza esleitu zitzaizkion Erakundeari orotara zeuden 13.839,51 partaidetzen artetik, 6.468,95 euroko unitate-balioan partaidetza bakoitza.

2017ko uztailaren 1ean, fusio operazio bat izan zen Ezten AKF (Fondo xurgatzailea) eta Ekintzaile XXI, FCR (Fondo xurgatua) artean. Operazio horren ondoren, Ezten AKFk 13.876,4963 partaidetza ditu guztira. 2018ko abenduaren 31n, Erakundeak % 15,60ko portzentajea du Ezten AKFn (2017: % 15,60).

5.1.b oharrean adierazten den bezala, 2018ko abenduaren 26an, Finantzen Euskal Institutuaren enpresa-ondareari erantsi zaio EAEko Administrazioak Elkargi EGEn dituen akzio-partaidetzak (53.724 akzio 120,20 euroko balio nominalean bakoitza).

8. Activos financieros a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias

Los instrumentos de patrimonio corresponden a la participación que el Ente ostenta en Ezten, Fondo de Capital Riesgo y Elkargi SGR.

El Consejo de Administración del Ente, en su reunión celebrada el 16 de diciembre de 2011, aprobó realizar una aportación a Ezten, FCR por importe de 14.000.000 euros. El 22 de febrero de 2012 se desembolsó la aportación. Una vez formuladas y aprobadas las cuentas anuales de Ezten, FCR correspondientes a 2011, se asignaron al Ente 2.164,1842 participaciones por un valor unitario de cada participación de 6.468,95 euros sobre un total de 13.839,51 participaciones.

El 1 de julio del 2017, se llevó a cabo una operación de fusión entre Ezten, FCR (Fondo absorbente) y Ekintzaile XXI, FCR (Fondo absorbido). Tras dicha operación, EZTEN FCR pasó a tener 13.876,4963 participaciones. El porcentaje que el Ente ostenta en Ezten, FCR a 31 de diciembre de 2018 es del 15,60% (2017: 15,60%).

Tal y como se indica en nota 5.1.b, el 26 de diciembre de 2018 se ha incorporado al patrimonio empresarial del Instituto Vasco de Finanzas la participación que el Gobierno Vasco posee en el capital social de Elkargi SGR (53.724 acciones de 120,20 euros de valor nominal cada una).

Hona hemen 2018ko eta 2017ko ekitaldietan balantzearen epigrafe honetan izandako mugimendua:

El movimiento de este epígrafe del balance al 31 de diciembre de 2018 y 2017 es el siguiente:

	Euroak / Euros		
	EZTEN, AFK / EZTEN, FCR	**ELKARGI, EGE**	**TOTAL**
KOSTUA / COSTE			
2017ko urtarrilaren 1eko saldoa / Saldo al 1 de enero de 2017	14.000.000	-	14.000.000
Sarrerak / Entradas	-	-	-
Irterrak edo bajak / Salidas o bajas	-	-	-
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	**14.000.000**	**-**	**14.000.000**
Sarrerak / Entradas	-	6.457.385	6.457.385
Irterrak edo bajak / Salidas o bajas	-	-	-
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**14.000.000**	**6.457.385**	**20.457.385**
NARRIADURA / DETERIORO			
2017ko urtarrilaren 1eko saldoa / Saldo al 1 de enero de 2017	(5.449.254)	-	(5.449.254)
Galerak (15.5. oharra) / Pérdidas (Nota 15.5)	(434.341)	-	(434.341)
Itzulera (15.5. oharra) / Reversión (Nota 15.5)	-	-	-
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	**(5.883.595)**	**-**	**(5.883.595)**
Galerak (15.5. oharra) / Pérdidas (Nota 15.5)	(973.000)	-	(973.000)
Itzulera (15.5. oharra) / Reversión (Nota 15.5)	-	-	-
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**(6.856.595)**	**-**	**(6.856.595)**
KONTABILITATE BALIO GARBIA/ VALOR NETO CONTABLE			
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	**8.116.405**	**-**	**8.116.405**
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**7.143.405**	**6.457.385**	**13.600.790**

2018ko abenduaren 31n, Ezten AKFko partaidetzaren balioa 7.143.405 eurokoa da, funtsaren arduradunak ekarritako behin-behineko itxieraren arabera. Horiek horrela, ekitaldian doiketa negatiboa egin da, 973.000 euroko balioan (15.5 oharra).

A 31 de diciembre de 2018, el valor de la participación en Ezten FCR, de acuerdo con el cierre provisional aportado por el responsable del fondo asciende a 7.143.405 euros, lo que ha supuesto un ajuste negativo en el ejercicio por valor de 973.000 euros (Nota 15.5).

Ekitaldian zehar aldakuntzak badaude galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituen arrazoizko balioaren araberako finantza aktiboetan, galdu-irabazien kontuko finantza-emaitzetako «finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza» atalean kontabilizatzen dira (15.5 oharra).

Los cambios habidos durante el ejercicio en el valor razonable de los activos valorados a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias se contabilizan en "Variación de valor razonable en instrumentos financieros" del resultado financiero en la cuenta de pérdidas y ganancias (Nota 15.5).

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, hauek dira Ezten AKF eta Elkargi EGEren datu garrantzitsuenak:

Los datos más relevantes Ezten, FCR y Elkargi, SGR a 31 de diciembre de 2018 y 2017 son los siguientes:

2018	Partaidetza / Participación	Kostua / Coste	Narriadura / Deterioro	Kapital soziala / Capital social	Erreserbak / Reservas	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak / Resultados negativos de ejercicios anteriores	Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	Balorazioagatiko ajusteak / Ajustes por valoración	Gainbalio latenteak / Plusvalías latentes	Ondare garbia / Patrimonio neto	Auditorea / Auditor
EZTEN, AFK / EZTEN, FCR (*)	15,60%	14.000.000	(6.856.595)	104.580.465	1.274.252	(61.896.407)	(529.326)	(166.500)	3.951.850	47.214.334	Deloitte
ELKARGI SGR / ELKARGI EBB (**)	7,44%	6.457.385	-	86.757.000	602.000	-	-	(745.000)	-	86.614.000	PwC

(*) 2018ko abenduaren 31n ikuskatu gabeko datuak. Zifrak eurotan. Datos a 31 de diciembre de 2018 no auditadas. Cifras en euros
(**) 2018ko abenduaren 31n ikuskatutako datuak. Zifrak eurotan. Datos auditados a 31 de diciembre de 2018. Cifras en euros

2017	Partaidetza / Participación	Kostua / Coste	Narriadura / Deterioro	Kapital soziala / Capital social	Erreserbak / Reservas	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak / Resultados negativos de ejercicios anteriores	Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	Balorazioagatiko ajusteak / Ajustes por valoración	Gainbalio latenteak / Plusvalías latentes	Ondare garbia / Patrimonio neto	Auditorea / Auditor
EZTEN, AFK / EZTEN, FCR	15,60%	14.000.000	(5.883.595)	102.580.465	1.274.252	(55.286.795)	(6.609.638)	(166.500)	2.845.332	44.637.116	Deloitte

2017ko abenduaren 31n ikuskatutako datuak. Zifrak eurotan. Datos auditados a 31 de diciembre de 2017. Cifras en euros.

9. Aktibo finantzario salgarriak

Ondare-tresnak Erakundeak Luzaro SAn duen partaidetzari dagozkio.

5.1.b oharrean adierazten den bezala, 2018ko abenduaren 26an, Finantzen Euskal Institutuaren enpresa-ondareari erantsi zaio EAEko Administrazioak Luzaro SAn dituen akzio-partaidetzak (120.000 akzio 6,01 euroko balio nominalean bakoitza).

Hona hemen 2018ko eta 2017ko ekitaldietan balantzearen epigrafe honetan izandako mugimendua:

9. Activos financieros disponibles para la venta

Los instrumentos de patrimonio corresponden a la participación que el Ente ostenta en Luzaro, S.A.

Tal y como se indica en nota 5.1.b, con fecha 26 de diciembre de 2018 se ha incorporado al patrimonio empresarial del Instituto Vasco de Finanzas la participación que el Gobierno Vasco posee en el capital social de Luzaro, S.A. (120.000 acciones de 6,01 euros de valor nominal cada una).

El movimiento de este epígrafe del balance al 31 de diciembre de 2018 y 2017 es el siguiente:

	Euroak / Euros LUZARO, S.A.
KOSTUA / COSTE	
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	-
Sarrerak / Entradas	805.837
Irteerak edo bajak / Salidas o bajas	-
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**805.837**
NARRIADURA / DETERIORO	
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	-
Galerak / Pérdidas	-
Itzulera / Reversión	-
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	-
KONTABILITATE BALIO GARBIA/ VALOR NETO CONTABLE	
2017ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2017	-
2018ko abenduaren 31ko saldoa / Saldo al 31 de diciembre de 2018	**805.837**

2018ko abenduaren 31n, hauek dira Luzaro SAren datu garrantzitsuenak:

Los datos más relevantes Luzaro, S.A. a 31 de diciembre de 2018 son los siguientes:

2018	Partaidetza / Participación	Kostua / Coste	Narriadura / Deterioro	Kapital soziala / Capital social	Jaulkipen-prima / Prima de emisión	Erreserbak / Reservas	Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	Ondare garbia / Patrimonio neto	Auditorea / Auditor
LUZARO, S.A.	17,65%	805.837	-	4.087.000	120.000	15.825.000	337.000	20.369.000	PwC

2018ko abenduaren 31n ikuskatutako datuak. Zifrak eurotan. Datos auditados a 31 de diciembre de 2018. Cifras en euros.

10. Kobratzekoak diren maileguak eta partidak

10. Préstamos y partidas a cobrar

	Euroak / Euros		Euroak / Euros	
	Epe luzea / Largo plazo		Epe laburra / Corto plazo	
	2018	2017	2018	2017
Enpresentzako kredituak (10.1 oharra) / Créditos a empresas (Nota 10.1)				
Emandako maileguak / Préstamos concedidos	173.722.315	191.123.558	56.493.748	46.488.664
Sortutako interesak / Intereses devengados	-	-	1.114.451	1.077.137
Enpresentzako kredituen narriaduragatiko hornidurak (15.2 oharra) / Provisiones por deterioro de créditos a empresas (Nota 15.2)	(23.993.836)	(21.943.835)	(3.778.440)	(3.778.440)
	149.728.479	**169.179.723**	**53.829.759**	**43.787.361**
Taldeko enpresentzako eta elkartuentzako kredituak (10.2 eta 16. oharrak) / Créditos a empresas del grupo y asociadas (Nota 10.2 y 16)				
Emandako maileguak / Préstamos concedidos				
Parke teknologikoak (MICCIN programa) / Parques tecnológicos (Programa MICCIN)	7.873.977	8.927.729	419.371	139.818
Socade SA	18.660.607	20.607.168	3.233.325	2.748.649
Enpresentzako kredituen narriaduragatiko hornidurak (15.2. oharra) / Provisiones por deterioro de créditos a empresas (Nota 15.2)	(1.611.000)	(1.611.000)	-	-
	24.923.584	27.923.897	3.652.696	2.888.467
Sortutako interesak / Intereses devengados				
Parke teknologikoak (MICCIN programa) / Parques tecnológicos (Programa MICCIN)	-	-	48.722	14.350
Socade SA	-	-	309.411	288.416
Cash poolinga / Cash-pooling	-	-	-	-
Enpresentzako kredituen narriaduragatiko hornidurak (15.2 oharra) / Provisiones por deterioro de créditos a empresas (Nota 15.2)	-	-	-	-
	-	-	358.133	302.766
	24.923.584	**27.923.897**	**4.010.829**	**3.191.233**
GUZTIRA / TOTAL	**174.652.063**	**197.103.620**	**57.840.588**	**46.978.594**

10.1 Enpresentzako kredituak

MICCIN Programa

2010ean lankidetza-hitzarmena sinatu zen Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarekin, eta haren babespean eragiketak kudeatzen jarraitu zen 2017an, 150 milioi euroko zenbatekoan. Hitzarmen horrek zientzia- eta teknologia-inbertsioak egiteko programa finantzatzea zuen asmo (2010eko uztailaren 27an sinatutako 217/2010 Dekretuak onetsitakoa). 2015eko abenduaren 29an, 244/2015 Dekretua (EAEn zientzia- eta teknologia-inbertsioak egiteko programa garatzeari buruzkoa) onartu zen, aurreko Dekretuko soberakineko 21,3 milioiak esleitzeko.

Ekitaldi honetan ez da mailegurik eman programaren kontura (2017: 4 mailegu, guztira 4,9 milioi euro).

Kredituen baldintzak 217/2010 eta 244/2015 Dekretuetan daude jasota: interes-tasak % 1,232koa eta % 1,500ekoa ziren hurrenez hurren; printzipala eta interesak ordaintzeko gabealdia, bost urtera artekoa; eta dirua itzultzeko epea hamar urtekoa. Erakundeak balio nominalean erregistratu ditu bi maileguak (14. oharra). 2018an, hirugarrenei emandako kredituek sortutako interesak 1.084.460 eurokoak izan dira (2017: 1.243.258 euro) (15.1 oharra).

Memoria honen 1. Eranskinean zehazten dira programako enpresa onuradunak, Hitzarmenaren babespean emandako gehieneko zenbatekoa eta

10.1 Créditos a empresas

Programa MICCIN

En 2017 se continuó con la gestión de las operaciones acogidas al Convenio de Colaboración con el Ministerio de Economía y Competitividad por importe de 150 millones de euros firmado en 2010, que financia el programa para la realización de inversiones científico-tecnológicas aprobado por el Decreto 217/2010 firmado el 27 de julio de 2010. Con fecha 29 de diciembre de 2015 se aprobó el Decreto 244/2015 por el que se desarrolla un programa para la realización de inversiones científico tecnológicas en la CAPV, con objeto de conceder los 21,3 millones de euros de excedente del Decreto anterior.

Durante este ejercicio no se han formalizado préstamos con cargo al programa (2017: 4 préstamos por importe total de 4,9 millones de euros).

Las condiciones de los créditos vienen recogidas en los Decretos 217/2010 y 244/2015, siendo el tipo de interés del 1,232% y 1,500% respectivamente, un período de carencia de principal e intereses de hasta 5 años y un período de reembolso de 10 años. El Ente ha registrado ambos préstamos a su valor nominal (Nota 14). Los intereses devengados de los créditos concedidos a terceros ascienden a 1.084.460 euros en 2018 (2017: 1.243.258 euros) (Nota 15.1).

En el Anexo 1 de esta memoria se detallan las empresas beneficiarias del programa, el importe máximo concedido al amparo del Convenio, así

erabilitako printzipala gehi interesak, narriadurak baino lehen.

como el principal dispuesto más los intereses devengados y antes de deterioros.

ETE/MIDCAP

